

# ITZALDIA

---

GOTZAIN JAUN TSIT BIKAIN TA ARGITSUAK:  
EUSKALDUNAK:

**Z**ERBANTES'ek «El Ingenioso Hidalgo» deritzayon liburu ilezinaren itzaurrean esaldi eder auşe ezarri zuen: «Egoarriak, toki pake-tsuak, landa-soroen edertasunak, ozkarbiak, iturrien zurrumurrutako gogoaren epeak, bururik antzuenai, ernalerazita, mundua pozez ta arrigarritasunez betetzeko umeak eragiten dizkiete». Nere buru onek eztu, ordea, egoarririk, beti ari baita ziri-mara zerbait gogoratzen. Ni bizi naizen tokia arramar ta zarraparratsua da. Badira Bilbo-aldean inguru eder zoragarriak; bainan uri-barrunean bizi geranok onelako zer gutsi ikusten degu. Egunik geyenetan odei ilunez estalirik agertzen zaigu izarraldea. Ango iturriak eztute, Aramayo-ibarrekoak bezela zurrumurririk egiten: gaisoak giltzepean gau ta egun isil-isilik iduki dauzkagu. Gogoia berriz, gure gogo au ¿noiz otedegu lasa, manatan, estutasun gabe? Eztezayola, beraz, gure buruari ez Zerbantes'ek ez bestek, arritzeko umerik (lanik) galdetu ta eginarazi. Egun auetan bezela, sailpean nintzalarik, orain ogei ta lau bat urte, arlo onetşen antzekoa eman nion buruari. Meza berri bat genduea nere sorturian; meza ori eman bear zuena Aramayoko seme eldu bat zan, etşe onetantşe jayoa, Bizente Goikoetşea. Apaiz egin berri ura adiskide min-mina nuen eta, beraren deya gogo onez adituta, itzalditso bat egiteko asmoz utzi nuen nere egoturia: Bilbo.

Adiskide biziari jarraitu nion onek ¿ez otenion adiskide ilari jarraitu bear, beronen izena eriotzea baino iraunkorrago izatea guztion artean eskuratzeko?

Arri eder bat jarri degu beraren jayotetše onetan. Oroikarritzat labur-laburtšo, bear bezela, ezarritako itzetan iru berri ageri dira: Aramayoarra ta musikalari bikaina ta elizgizon bioztsua zala. Belarrietan durundika degun *Te Deum* eder ori aski dala uste det nolako musikalaria zan jakiteko. Oroitarriko beste bi berriok azaltzea izan bite nere saila.

Il zan arte askok uste zuten Lekeitioko semea zala, noski an bera ta, batez ere, beraren aiderik urkoenak luzaro bizi izan diralako. Berak, ordea, beraren izkeran: izakeran eta biozketa guztietan argiro agertzen zuen beraren jatorria. Musikaz irabazitako lenbiziko dirua Aramayoko gaišotegirako bidali zuen. Meza-soineko ederrak ugari, kaliza, Misala ta eskuartetšoren bat ere onerakoše utzi ditu. Itsasaldeko uritšo maitagarri artan bizi zala, udako oporregunetan beinzat, iluntzero alkatrekin izaten ginan: Elizan lenengo, itsasgain-gainean gero; eta egurats (aize) lodiz birikak sendatzen genituen bitartean, alkar, igarri gabe bezela, egunean baino egunean obekišeago ezagutu ta samurrago maitatzen bizi ginan. Orduan zan neri emengo berri ematea; emengo organularia aurpegiz ta biotzez nor zan adieraztea. Orduan ikasi nituen emengo auzotegitšoen izenak: Gantzaga ta Barajuen, Arešola ta Etšaguen Azkoaga, mendiz beste aldeko Olaeta ta gainerakoak.

Nere lenbiziko apaiz-urtean, lau-bost adiskidek Bilbon albistaritšo bat sortu gendueri, «La Abeja» izentzat zuena. Silberio Etšebarria apaiz gartsua, Durangoko zaldun Antonio Arginzoniz, Abandoko seme Arana-Goiri'tar Sabin, besteren bat eta nerau ginan «Erle» igarokor arri loretšo bat edo beste eskintzekoak. Albistari arretšen egapean erakutsi zituen lenbiziko aldiz Arana-Goirik Bizkaiko gertaera zar batzuek: Gordexola, Mungia, Padura ta Otzandioko esetsiak. Nik irakurgaitšo alai bat, «Peru Matraka ta Pedranton» izentzat zuena, asi nuen. Nere buruko ume ayek ementše, zeron artean, Aramayon bizi izan ziran. Lantšo ura nere adiskide Bizentek irakurri zuenean, sadurpeko bizarra eskerraz leguntzen zuenartean, itz auek esan zizkidan: «baina, mutil, au eztek Aramayo».

Urte batzuek geroago, bera apaiz zalarik, arako euskal-jayetan, d'Abbadie jakintsuaren izenean nik, nere erria ere alde bat utzita, onera ekarrarazi nituen jai eder ayetan; larunbat-arratsaldez elizalde onetara eldu nintzanean, kalean sartuta, mendiak nik uste baino aundiago, ibarra medarrago, ezkerrean iruditu nituen auzotegiak eskubi-aldean ta gorengo-tzat neduzkanak kaletik urbil ikusi nituenean; nere adiskide

Aramayoarra etorri zitzaidan burura: eta nereko esan nuen: «Aramayo ura, «Peru Matrakaren» Aramayo, ezukan Aramayo; Aramayo egiazkoa au dek».

Gertaeratso onek argiro erakutsiko dizute nolako erri-maitea zan zuen jayotide Goikoetsea. Gure artu-emanetan, nere biotzean berarena sartzea aski izan ezta, zuenganako maitetasuna barruneragino sartu zidan.

Arabako Batzarrak, Lege-zarrekoak, Aramayon bildu ziran atzenaldiz. Orduan, Zaldibitik maisua ekarrita, mutiko-mordoska batek ezpatadantza ikasi zuen. Dantzari-arteetan zan Goikoetsea gaztetsoa ere. Zerbait geroago, Isabel bigarrena Gazteiz-a eldu zan batean, ara deituak izan ziran emengotse dantzari tsikiak. Elizondoan eskola, Areñolako apaizaren ardurapean latina, ta organulari aita-semen zuzenbidez musika ikasi ta gero, Gazteiz-a joan zan *bachilleratua* ikastera. An Arabako seme entzute andiko batekin, Mateo Benigno Moraza jaunarekin, artu-emanandia izan zuen. Musikarako zekarten gaitasuna nabaritzuz, beraren pianua eman zion Morazak Bizenteri. Bein baino sarriago esaten omenzion lege-zar zain ospetsuak: «mutil, egin adi apaiz ta Gazteizko kanonigu egingo augu». Berak, otzan ta apal, etzuela deirik, bokaziorik etzuela erantzuten zion. Aita il ta gero entzun zuen biotzean goiko dei au. *Bachillerkuntzea* erizpen gorenez (notarik onenakin) burututa, Oñatin eta Balladoliden ikasi zuen, Baratari (notario) egin-arte.

Gizonai arnari batzuen, *fruta* zenbaitena, gertatzen zaye: batzuek goiztso eldu ta umotzen diran artean, besteak berandu edo inoiz eztira eitzen. Pikuak beste edozein zugatzek baino goizago pipildu edo nini-katzen dira: ale tsikiak, garagarrilerako biribilduta, uda guztian ikusten ditugu: anditzeko, odayai ur-eske; biguñtzeko, eguzkiari berotasun-galdezka. Gero udazkenean, egunak laburtzen diranean, odayak tantoka asiezkeru, pikuari, eldu-orduko, beraren alde geroago tsikiago, geroago gogorrako adar soiletatik ilotzik erortzen zaizkio. Eta aldiz berak baino beranduago ninikaturiko gereziak, azokaz saskitsoetan darabilzkite salgai; eta marrubiak, udako beroak sartu baino ere lenago, eskintzen digute beren otekin gozoa. Gizon asko ta asko dira beti mutil diruditenak: gorputz larria gaztetsoetatik azita, burua umotu-orduko, zuritzen zayenak. Etzan onelakoa zuen erritarra. Marrubia bezela goizgoiztetik eldu zan; mutil gaztea zalarik, zan gizona. Etzuten aren ezpainak lagun-arteetan bein ere ebakiko, aitaren aurrean ez esateko itzik.

Lege-gizon (abogado) izateko ikaste gutsi bear baitzuen, beraren adiskide on batzuek. Egiluz jaun andreak, Balladolid'era eraman nai izan zuten. Berak apaiz-naya zala erantzun zienean, beren etxean bizi ta angoše seminarioan ikasi eargin zioten. Ain zuzen ere, nik neronen lenengo meza eman nuen egunean, 1888-garren urteko Done Migelez atera zan bera Lekeitiotik Balladolid'ako. Atseginez alde batetik (beraren onerako baitzan), bestetik atsekabez ikusi zuen Lekeitioko uriak Goikoetsearen joakera. Bertako semea izan balitz, etzuten maiteago izango. Gero Balladolid'en izango zana, gure urian izan genduen: elizako musikarieren zuzentzaile; eta sail onetan esker ona ta maitetasuna baino beste saririk etzuen izan. Inor etzan arritu beraren asmo onen berri jakiteaz. Ogeita amalau urte zituen, apaiz-ikasteak asi zituenean. Arran ari zala, ango *Maestro de Capilla* il baitzan, Tolosa'ra Gorriti entzutetsuarengana etorri zan, *Contrapunto ta Fuga* ikastera. *Harmonia* lenago Gazteiz'ko Abad zeritzayon apaiz baten ardurapean ikasi zuen. Tolosan urterdi-inguru igarota, Balladolid'ko batzaldira (konkursura) beste batzuekin agertu zan. Eritzia eman bear zuen maisuak bera soil-soilik autatu zuten, *ternan* besterik inortso ere sartu gabe. Naikide aye-tarik batek, Olmeda'k, erizlariak eta Goikoetsea bera ere uri artako paperetan garrazki mindu zituen. Zuen erritarrak orduan paperetan bertan jarki nai zuelarik, bertako batzuek burubide ause eman zioten: bertan bera uzteko arloari; epayari eragitea tsarrago izango zala, onena nor zan edozeinek zekiela-ta.

Zuen arteko batzuek, batez ere berarekin adiskidez lotuak izan zeraatenok, izan liteke, bere bizitzeko gertaera au entzunez, arrituše gelditu ta gainera aopean onelako zerbait esatea: «gure erritar maitegarri au otzana zan, ezekien gora-goraka inoiz asten; apala zan, losintsa ta itz gošo ta gorespen-bila etzan bein ere ibiltzen; epetsua, egoarriduna ta odol-ila zan. ¿Nola izan diteke, beraz, pirri bat bezela, zirikatu egin zutela-ta, beraren burua zaintzen jaso ta jarki ta esetsi nai izatea?»

Apala ta otzana ta ur-ila de Genesareiko itšasoškoak, auzoko mendiak tsulo batean osin bat bailitzan daukatena. Badaki, ordea, noizean beinka, itsaso zabal mugatu gabeak bezela, burua goratu ta ugin (olatu) gaitzez arrantzale gaišoak galdu-gordean erabiltzen.

*Curam habe de bono nomine* «izen ona, zaindu ezazu», irakurtzen degu jainkozko liburuetan. Ause egin nai izan zuen orduan Balladolid'ko maisu berriak. Uste dan baino maizago, sarriago, ikusten dute burua musikarriak, beren izen ona zaindu-bearrean. Beste edozein

antzelari (artista) bezela, soñuantzedunak, musikalariaiak, bikainenak beintzat, geyenean sasietako arantzen gisa itsasten dira: alkar zirikatuz, alkar minduz, batak bestea ikusi ezinez; eta arrak lurra ta pipiak zura ta erdoyak burnia jaten duten antzera, bekaitzak (inbidiak) biotza jaten die. Orrelako gizonak, noski antzelari trebeak izanarren, biotza bezen kaškarra ta kaškala dute burua ere. ¿Gizarteko omenaren (gloriaren) billa zabiltzate? ¿Uste dezute zuen amets zoroetan iruditzen zaitzuten omen-mendi ori zorrotz-zorrotza dala ta beraren erpinean arrano bakar batek atzaparra jarri dezakeala? Ametsetan ari bazerate, esna ta zoazte gogo-indarrez mendiak baino gorago; an normairentzat lasai ta ugari ta edatsu dira omen-uneak. Jaungoikoaren omena (gloria), itzez bakarrik ez, egiaz nai badegu; ezkaitezen estutu ta sapuztu, poztu gaitezen, lagun on bat, gogaide burutsu bat geyago aldamenean agertzen zaigunean.

Zuen erritarrak etzuen izan ez gibelean beaztunik, ez biotzean bekaitzik. Lagunen bati egiten zitzaizkioten tšaloak etzuten larritzen. ¡Amaika musikalariai gaztek, esker onez orotuko ditu Goikoetšeak emandako pozgarri ta burubide onak! Euskalerriko soñu zarrak biltzeko asmoa erakutsinionean, ni artarako alaitu ta berotzeko, emengotše bi kantatšorea asiera eman zidan. Aurren artekoa da bata: *Atšia-mutšia perolipan*; bestea, beizain-artekoa: *Labiru-logura bai ganaduzaina*. Aramayora eldu nintzanean osotu nituen berak erdizka irakatsitako zertšo auk.

Gizartean nunnai izaten dira noizean bein alkarren arteko eztabaidak, batak au, besteak ori uste duela. Onelako izkaldietan, besteak geroago beroago egiten ziranartean, bera geroago otzago egiten zan. Beraren mendu otz epetsu au obeki ezagutzeko, entzun ezazute Balladolid'ko gertaeratšo au. Len aitatu dizutedan balzaldi (konkursu) artan, Gorriti zan tribunalaren buru Maisunai ayek bakoitzak beraren lana (zortzi bozetarako *Fuga* zan) agertu zutenean; Aramayorarrak, berarena garbitan jartzean, gorengo lerroa aztuta utsik utzi zuen.

Utsune ura ikusirik erizleak Gorriti'ri esan zioten: «Guk ere zuk bezela uste degu: auše dala onena; bainan lerro bat utzi du bete gabe, ta.... » Tolosa'ko musikalaria kisulabea (karobia) bezin sutsua zan ta «neronek berealaše ekarriko det lerro purtzil ori» esanta, bizkor joan zan Goikoetšea bizi zan etšera. Sartu zaneko, ez «egun on», ez «nola zera» galdetu gabe «¿zer egin diezu?» esan zion.—¿Nik?—Bai, «zuk, zerorrek, ¿Or aldezu zirriborroa?» Musikalariai gazteak papera

erakutsi zionean, purrustada bat egin ta bera eskuan zuela, mailadian bera zarrapastaka jetši zan Gorriti, lagunai «Ierro purtzila» erakustera. Bata bero-berorik tšinparta zeriola zegoenartian, bestea, zuen erritarra, otzik eta astitsu zegoen. Izatez, menduz zan orrelakotšea.

Odol ila izanarren, beti aldarte oneko, beti gogaldi alaiz ikusten nuen. Gizon zurbil gutši dira parre algaraz egiten dutenak. Ark parre gozoak, karkailak, egin ta eragiten zituen. Buruari zegokion biotza zuen. Buruz argia bezin prestua zan biotzez. Bakanbakanak ezagutu ditezke ura bezelako adiskide maitagarri, lagungin, eskertsu, itzeko gizon zintzoak. Bera irudiko bat, aurtan, berarekin bateratsu il da Euskalerrian, nere ikaskide ta adiskide andia ura ere. Bizente Goikoetšea etše onetan jayo zanean; esan diteke bi arima eder, bizkiak, atera zituela Jaunak biotzaren barren-barrenetik; eta bata Aramayoratu zan artean, bestea Bilboko Franzisko Iturribarriaren gorputz sorberria biztutzero jetši zala. Biak izan dira euskaldun onak, biak erakusmeneko apaizak, biak antzelari (artista) andiak: batau musikara bezela, beste ura eresira (poesiarara) kuturtu zan. Jaunari nai dakiola, nere adiskide Iturribarriaren izen onaren alde, gaur emen egin deguna, egin al izatea. ¿Nork eztaki zuen erritar aztuezin au apala, arrokeri-gabea zala? Alarik ere, beraren nagusi Balladolid'ko Kardenal jaunak. Kanonigu eginez, sariztatu nai izan zituen beronen ontasun ta lan ederrak. Labur iraun dio nabarmentasun onek etse onelako seme andiari. Beste sari bat zeukan gerturik Jaungoikoak, bere jauregian, inoiz zimurtu, ez tšimeldu, ez gutšitu, ez aituko eztan sari ederra.

RESURRECCIÓN M. DE AZKUE, *Pbro.*

